



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2023.04.27

Ordua: 19:30

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Eraikuntza eta eraispenetako hondakinen gaineko fidantzak arautzen dituen ordenantzen aldaketa. Hasierako onespena.
3. Zerbitzu anitzetako peoi bat kontratatzeko deialdiaren onespena.
4. UB5 unitatearen hiri jarduketako plan berezia. Behin betiko onespena.
5. UE5 unitatean etxebizitza babestuaren gutxieneko estandarraren eskakizuna ezabatzea.
6. Bortzirietako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Planaren (2023-2027) onespena.
7. Arantzako Lur Ez Urbanizagarrian energia berriztagarrien plantak ezartzeko lizentzien emakida etetea.
8. Arantzako hirigintzako araudi orokorraren aldaketa xehatua. Hasierako onespena.
9. Alkate Ebazpenak.
10. Galderak eta eskaerak.

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA

2023/02/28ko akta BERTARATUTAKOEN AHO BATEZ onartu da.

2. ERAIKUNTZA ETA ERAISPENETAKO HONDAKINEN GAINEKO FIDANTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak azaldu du 2021eko martxoaren 9ko Arantzako Udalaren osoko bilkura arruntean hasiera batez onetsi zela Arantzan eraikuntza eta eraispenetako hondakinen gaineko fidantzak arautzen dituen ordenantza. Horrela bada, aipaturiko ordenantzaren behin betiko onespena eta testu osoa 2021eko ekainaren 17ko 140. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Ordenantza aplikatuz joan ahala, ordenantzan xedaturiko hainbat artikulua Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispenetako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen 23/2011 Foru Dekretuarekin bateragarria ez dela ikusi du idazkariak. Izan ere, honako honek etxeetako eraikuntza edo konponketako obra txikietako fidantzez gain (honako hauek ordenantza bidez arautuak izan daitezke), bertzelako obren fidantzak ere arautzen ditu.

Horregatik guztiagatik, idazkariak eraikuntza eta eraispenetako hondakinen gaineko fidantzak arautzen dituen ordenantzako 2. eta 7. artikulua eta I. eranskina aldatzea proposatu du.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ, ERABAKI DU:

1.- Eraikuntza eta eraispenetako hondakinen gaineko fidantzak arautzen dituen ordenantzako 2. eta 7. artikuluen eta I. eranskinaren aldaketari hasierako onespena ematea.

2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea 30 egunez bizilagun eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten.

3.- Jendaurreko epean erreklamazio, kexa edo oharri aurkeztu ezean, behin betikoa egitea testua eta honako hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3. ZERBITZU ANITZETAKO PEOI BAT KONTRATATZEKO DEIALDIAREN ONESPENA.

Idazkariak azaldu du 2023ko apirilaren 24ko 41/2023 Alkate Ebazpen bidez onespena eman zitzaiola zerbitzu anitzetako peoi bat kontratatzeke deialdiari, aldi baterako lan kontratuarekin eta hautapen frogar bitartez, hauek izanik lan kontratuaren baldintza nagusiak:

- Lanpostua: zerbitzu anitzetako peoia.
- Iraupena: 6 hilabete.

- Lanaldia: osoa.
- Lansaria: E mailari dagokiona, % 15eko maila osagarria eta % 16,50eko lanpostu osagarria gehituz.
- Eginkizunak:
 - o Ur biltegien, hornidura eta saneamendu sareen mantentze-lanak.
 - o Herriko argiteriaren mantentze lanak.
 - o Udalaren bertze hiri zerbitzuen mantentze eta zaintza lanak.
 - o Hiri altzarien pintatze lanak.
 - o Basolanak eta ingurune naturalaren mantentze lanak.
 - o Arantzako karriken garbiketeta eta mantentze-lanak.

Aipaturiko kontratazioa Nafar Lansare-Servicio Navarro de Empleo zuzendari kudeatzailearen 251/2018 Ebazpenean azaltzen denaren arabera egingen da, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeke. Horrela bada, izena emateko epea 2023ko maiatzaren 12an bukatuko da.

Idazkariak azaldu du, Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legeko 21.1.g) artikuluan xedaturikoaren arabera, alkateak du langileak hautatzeko proben oinarriak onartzeko eskumena. Zentzu horretan, kontutan hartu beharra da nahiz eta lanpostu hau Arantzako Udalaren plantilla organikoan ez egon, 2023ko aurrekontuan aipaturiko lanpostua betetzeko langilea kontratatzeke partidak daudela. Hala eta guztiz ere, alkateak adierazi du aipaturiko deialdiaren berrespena osoko bilkuratik pasatu nahi izan duela, honek deialdiaren berri izan eta bere onespena eman dezan.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ ERABAKI DU:

1.- Onespena ematea apirilaren 24ko 41/2023 Alkate Ebazpen bidez onetsitako zerbitzu anitzetako peoi bat kontratatzeke deialdiari, aldi baterako lan kontratuarekin eta hautapen frogar bitartez.

4. UB5 UNITATEAREN HIRI JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Idazkariak azaldu du 2022ko abenduaren 13ko 150/2022 Alkate Ebazpen bidez hasierako onespena eman zitzaiola Alicia Beizama Rezabalek eta Joseba Madariaga Arocenak sustaturiko UB5 unitateko hiri jarduketarako plan bereziari. Jarduera honen xedea da 5. poligonoko 741. lurzatiari eragiten dizkion Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa egitea.

Hasierako onespeneren iragarkia 2022ko abenduaren 29ko 261. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, baita Nafarroan editatzen diren egunkarietan ere, espedientearen jendaurrean paratuz hilabeteko epea, interesdunek alegazioak aurkez zitzaten. Horrela bada, jendaurreko epean ez dira alegaziorik aurkeztu; beraz, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72.1.b) eta c) artikuluan xedaturikoari jarraiki, hasiera batean onetsitako Hiri Jarduketako Plan Berezia behin betiko onetsi daiteke.

Idazkariak azaldu du, Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legeko 22.2.c) artikuluan xedaturikoaren arabera, osoko bilkurak duela hirigintzako legerian aurreikusitako planen eta gainerako antolamendu tresnen izapideei amaiera emateko eskumena. Era berean, honako akordio hau ez da gehiengo osoz hartu beharko; izan ere, ez da aipaturiko legeko 47.2. II) artikuluan xedaturiko aldaketa egituratzaile bat.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ, ERABAKI DU:

1.- Alicia Beizama Rezabalek eta Joseba Madariaga Arocenak sustaturiko UB5 unitateko hiri jarduketarako plan berezia behin betiko onestea.

2.- Behin betiko onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 79. artikulua arabera.

3.- Espedientea Nafarroako Gobernuko lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuari helaraztea, hamar eguneko epean gehienez ere, haren gaineko kontrola egiteko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz.

4.- Akordio hau sustatzaileei jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

5. UE5 UNITATEAN ETXEBIZITZA BABESTUAREN GUTXIENKO ESTANDARRAREN ESKAKIZUNA EZABATZEA.

Idazkariak azaldu du 2022ko uztailaren 27ko osoko bilkura arruntean hasierako onespenera eman zitzaiola Silvia Telletxea Iraolak eta Iñaki Etxeberria Aranazek sustaturiko UE5 unitatean (5. poligonoko 350. lurzatian) Udal Planeko Arau Subsidiarioaren aldaketa egituratzaileari. Horrela bada, 2022ko abuztuaren 2an aipaturiko espedientea Nafarroako Gobernuko Hirigintza Atalera helarazi zen, dagokion txostena egin zezan, hori guztia Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 71.9. artikuluan xedaturikoa betez.

2022ko abenduaren 29an Nafarroako Gobernuko Hirigintza Ataleko txostena jaso zen eta honen 4.1. puntuan honako hau dio:

“1/2017 DFLren 54. artikulura egokitzeko baldintzak lekualdatzeko.

Eraikuntza Atalak, 2022-09-12an, jakinarazi zuen Udalak, nahi izanez gero, 54. artikulua idazkera berriari heldu ahal izango ziola, uztailaren 1eko 20/2022 Foru Legearen 7. xedapen iragankorren arabera, osoko bilkuraren erabakiaren bidez edo udalerririk horretan etxebizitza babestuen eskatzaileek ez zegoela justifikatuz, udalerririk biztanle guztiek parte har dezaketen udal-bandoa edo -inkesta argitaratu izana ziurtatuz, eskatzaileen zerrenda bat sortzeko, eta emaitzak zerbitzu horretara bidaliz, dagokion etxebizitza babestuen erreserbatik salbuesteko eskaerarekin batera.”

Horri dagokionez, idazkariak azaldu du 2020ko abenduaren 9an bando bidez Arantzako Udal Planak irauten duen bitartean Babes Ofizialeko Etxebizitzen eskakizunak biltzeko inkesta egin zela. Inkesta horretan ez ziren izen-ematerik egon. Beraz, Etxebizitza Zerbitzuko zuzendariaren otsailaren 9ko 20/2021 Ebazpenaren bidez S1 Sektorean etxebizitza babestuaren erreserba ezabatzea baimendu zuen.

Horrela bada, alkateak eta Eneko Sarrias zinegotziak adierazi dute, epe motzean etxebizitza babestuaren eskakizun falta izan dela Arantzan.

Azkenik, idazkariak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 54.1.c) artikuluan xedaturikoa aipatu du:

"Planeamenduaren aurreikuspenak kontuan harturik 2.000 biztanle baino gutxiagoko populazioa daukaten udalerrietan: urbanizatzeko berriko jardueretan eta urbanizazioa berritzeko edo birmoldatzekoetan aurreikusita dagoen bizitegi-ahalmen berriaren %20. Baldin eta etxebizitza-kopuruaren gorakada 25ekoa edo gutxiagokoa izanzen balitz, udalek zilegi izanzen lukete etxebizitza babestuaren gutxieneko estandarrari buruzko baldintza bigundu edo ezabatzea, Osoko Bilkuraren gehiengo soilez harturiko erabakiaren bitartez."

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KOPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ, ERABAKI DU:

1.- UE 5 unitatean etxebizitza babestuaren gutxieneko estandarraren eskakizuna ezabatzea, hori guztia Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 54. artikuluan xedaturikoa betez.

2.- Akordio hau sustatzaileei jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

6. BORTZIRIETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN (2023-2027) ONESPENA.

Idazkariak Bortzirietako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Planaren berri eman du. Honako hau 2023tik 2027ra izanzen da aplikagarria.

Horri dagokionez, aipatu du ez dela Bortzirietako mailan egiten den lehendabiziko berdintasunerako plana; izan ere, honako hau hirugarrena da. Aitzineko biak, gauza bat edo bertze, ez dira guztiz aitzinera eraman.

Honako plana gaur egungo egoerari eta administrazio publikoan aplikatzeko erari egokituta egin dela azaldu du. Zentzu horretan, aipatzekoa da bereziki, berdintasuna zeharkako gaia izanik, planak jarduera guztietan nola aplikatu zehazten duela. Bortzirietako udaletan eta mankomunitateetan berdintasun ikuspegia nola txertatu zehazten du planak: administrazio lanetan, politikoki, etab. Gainera, ez du soilik administrazio publikoa kontuan hartzen, herritarrak eta talde feministak edo antzeko bertzelako eragileak ere kontuan hartzen ditu.

Horrela bada, plan honek Bortziritan, era bateratuan, berdintasuna aplikatzeko irizpideak zehazten dituela adieraztera eman du idazkariak.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ ERABAKI DU:

- 1.- Bortziritako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana (2023-2027) onartzea.
- 2.- Jakitera ematea Arantzako Udalaren konpromisoa, ahal den neurrian, plan honetan adierazitako helburuak betetzeko.
- 3.- Akordio honen berri Bortziritako Berdintasun Zerbitzuari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

7. ARANTZAKO LUR EZ URBANIZAGARRIAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN PLANTAK EZARTZEKO LIZENTZIEN EMAKIDA ETETEA.

Alkatek azaldu du Arantzako Udal Plan Orokorrek ez duela energia eolikoa eta fotovoltaikoa ekoizteko instalazioetarako erabilerak jasotzen. Gainera, lur ez urbanizagarriko kategoria gehienetan baimendu daitezkeen azpiegituren erabileran sartzea interpretatzen da.

Arantzako Udal Plan Orokorraren hirigintzako araudiaren balizko aldaketa bat aztertzea eta energia berriztagarrien plantak, eolikoak zein fotovoltaikoak, ezartzeari dagokionez lur ez urbanizagarrian hainbat kategoriatan ezarritako babes-araubidea arautzea beharrezkoa dela dio osoko bilkurak.

Horri dagokionez, idazkariak azaldu du aipaturiko aldaketaren prestakuntza aztertu bitartean, eremu edo erabilera jakin batzuetan lizentzien ematea eten dezakeela, horien prestakuntza edo erreforma aztertzeko, eremu horiek behar bezala definituz. Hori guztia, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 70.1 artikuluan xedaturikoaren arabera.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ, ERABAKI DU:

- 1.- Arantzako Lur Ez Urbanizagarrian energia berriztagarrien planten instalazio eolikoak zein fotovoltaikoak ezartzeko lizentzien emakida etetea.
- 2.- Etenaldiak gehienez urtebeteko indarraldia izanen du, erabaki hau hartzen denetik edo Udal Plan Orokorra aldatzeko proposamena hasieran onartzen den arte.
- 3.- Udal-zerbitzuei agintzea aipatutako eremuan erabilera horietarako lizentziak emateko prozedurak eten ditzatela.
- 4.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean argitaratutako egunkarietan argitaratzea.

5.- Ohartaraztea erabaki honen kontra errekurtsio hauetako bat aurkez daitekeela, aukeran:

- a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, zuzendua Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko organo eskudunari, bi hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.
- c) Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

8. ARANTZAKO HIRIGINTZAKO ARAUDI OROKORRAREN ALDAKETA XEHATUA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak azaldu du Arantzako Udalaren 2022ko maiatzaren 25eko osoko bilkura arruntean Arantzako hiri-lurzoruan ostatu turistikoak egiteko obra lizentziak eteteko akordioa hartu zela. Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 70.3. artikuluan xedaturikoaren arabera, etenaldiak erabakia hartu zenetik gehienez urtebeteko indarraldia izanen luke edo Udal Plan Orokorra aldatzeko proposamena hasiera batez onartua izan arte.

Horrela bada, idazkariak 2022ko apirilaren 24an Arantzako udal arkitektoak prestatutako memoria eta hirigintzako egokitasunerako txostenak azaldu ditu, Arantzako Hiri Araudi Orokorraren 21. artikulua aldatzeko, turismo ostatuko establezimendu berriak sortzeko debekuari edo hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian handitzeari buruzkoa.

Osoko bilkurak gaiaren inguruan eztabaidatu du. Nafarroan jasangarritasun langa % 35ean ezarrita dago, Arantzako aldiz % 45ekoa da; izan ere, ohe kopuru eskaintza 268koa da. Era berean, herrian bizitzeko alokairu eskaintza eskasa da eta neurri hauekin turismo jasangarria lortu eta bertan bizitzeko aukera eman nahi du udalak. Gainera, landa eremuan ostatu-turistikoak izateko aukera mantentzea ongi ikusten du, arlo ekonomikorako lagungarria izanen dela deritzo.

Ikusirik aipaturiko aldaketa xehatua dela, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.3. eta 72. artikuluetan xedaturiko prozedura jarraitu beharra dela dio idazkariak.

Era berean azaldu du, Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legeko 47.2.1) artikuluan xedaturikoaren arabera honako akordio hau ez dela gehiengo osoz hartu behar; izan ere, ez da aldaketa egituratzaile bat.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, **KORPORAZIOKO LEGEZKO KIDE-KOPURUAREN GEHIENGO SOILEZ, ERABAKI DU:**

1.- Arantzako Hiri Araudi Orokorraren 21. artikulua aldaketa xehatuari hasierako onespena ematea, turismo ostatuko establezimendu berriak sortzeko debekuari edo hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian handitzeari buruzkoa.

2.- Aldaketa espediente guztia jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, baita Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan ere. Halaber, espedientea bizilagun edo interesdunen eskura egonen da udal bulegoetan, egoki jotzen dituzten iradokizun edo alegazioak egiteko.

9. ALKATEAREN EBAZPENAK.


14/2023tik 42/2023ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

10. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 21:00 direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.


ALKATEA,



Dabid Iturria Almandoz



**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**



Nagore Madariaga Iriarte